

# Asisko gutuna

2020ko abendua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

146 zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Zenbat energia inbertitu dugun eta inbertitzen jarraituko jakinduria lortzeko. Ezagutzaren bilaketak ondo islatu dezake zer izan den gizateriaren historia, norberaren eta unibertsoaren errealtatearen ulermena lortu nahian. Baina muga eta zailtasun berberak izaten ditugu beti. Jakinduria ez da lortzen, jaso egiten da.

## Gogoetarako gaia

### *Apaltasuna, jakinduria berria*

Pertsona batzuek harritu egiten gaituzte beren oroimen handiagatik, gai direlako informazio asko pilatzeko jakintza-arlo askotan: zientzia, kultura, historia... Entziklopedia ibiltariak bezalakoak dira. Telebista lehiaketa bat ikustea besterik ez dago. Asko dakitela esaten dugu. Badira beste pertsona batzuk, aurrekoek bezainbeste ez dakiten arren, besteak mugitzen dituzten giza mekanismoak atzemateko erraztasuna dutenak; azkarrak dira ondo-koari zer gustatzen zaion eta zer ez zaion gustatzen antzematen, zein motibaziok mugitzen duen, nola sentitzen den, zer behar duen... Ez da erraza engainura eramatea, ondo igartzen bai gaituzte.

Baina jakintsua den norbaiti buruz ari garenean, ez gara datuak eta jakintzak metatzeaz ari, ezta pertsonen ezagutzaz ere, baizik eta geure buruarengandik eta besteengandik espero ezin dezakeguna hautematen hasten garenean lortzen den giza gaitasunaz. Gure giza izaerak eman dezakeena eta eman ez dezakeena bere neurrian kalibratzeko usaime-

na bezalakoa da. Ez da ahalegin intelektual baten emaitza hutsa, ezta harremanetarako trebetasunena ere, baizik eta esperientzia pertsonalean lortutako argitasun hori, gure egian kokatzen gaituena. Jakinduria horrek ez gaitu besteen gainetik edo azpitik jartzen, baizik eta gure lekuan jartzen gaitu errealtatearen erdian. Apaltasuna eskatzen duen jakinduria mota bat da. Egoera horretara iristen ari den gizon-emakumea pertsona jakintsua dela esaten dugu.

Eta bada beste jakinduria bat, aurrekoaren antzekoa, Jainkoaren aurrean lortzen dena. Izaki dela dakien pertsona da. Lorpen moduko bat edo lortzen den zerbait baino gehiago, errebelazio moduko zerbait da, opari bat. Jainkoaren presentziaren aurkikuntzaren aurrean, norbera, aldi berean, naturaren miraririk handiena bezala ikusten da jasotzen duen maitasunagatik, eta kreaturarik txikiena bezala, dena opari baita, dohain, inolako meriturik gabekoa.

## Bibliako pasartea: 1 Kor 2,1-5

Horregatik, senideok, nik ere, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuenean, ez nizu en hitz egin giza jakinduriatzko hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua izan ezik. Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar aurkeztu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriatzko argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarri zedin eta ez giza jakindurian.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Frantzisko dohatsua Portziunkulako Santa Marian eginiko Kapitulu jeneralean, Lastairen Kapitulu deiturikoan, zegoen. Bertan bost mila anaia bildu ziren, horietako asko eta asko jakintsu eta ikasiak. Hauek kapituluan zegoen jaun Kardinalari –hau gero Gregorio IX.a Aita santua izango zen– esan zioten konbentzi zezala anaia Frantzisko jakintsuen aholkuei jarraitzera eta haien gidaritza onartzera. Eta Benedikto, Agustin eta Bernardo santuen erregelak aipatzen zituzten, hauek zehazki irakasten baitute nola bizi.

Entzun zuen Frantziskok Kardinalaren oharpena, eta, hau eskutik hartuta, kapituluan bildurik zeuden anaiengan eraman zuen eta honela hitz egin zien anaiari: «Ai anaiok, ene anaiok, Jaunak apaltasunean eta xalotasunean bizitzera deitu ninduen. Ez iezadazue beste erregelarik aipa, ez San Agustinena, ez San Benediktorena eta ez San Bernardorena. Jaunak adierazi zidan, ni mundu honetan zoro berri bat izatea nahi zuela, eta jakintza honen bidetik eraman nahi izan gintuen, ez bestetatik. Zeuen zientzia eta jakintzaren bidez nahastuko zaituzte Jainkoak. Nik Jaunaren borroengan dut konfiantza, horien bitartez zigortuko zaituzte la Jainkoak, alegia, eta orduan, nahitaez, latsa-latsa eginda itzuliko zarete zeuen lehengo egoerara».

Kardinala erabat txunditurik geratu zen eta ez zuen ezer erantzun, eta anaia guztiak beldurrak hartu zituen. (PerLe 18)

## Otoitza

Ez kutuan zauden jakinduria  
gehiago ahal izatearen zalantzazko sare  
eta harrokeriaren amildegi leunen artean.

Des-jabetze hutsaren bidean gora egiteak  
apalkuntza azkarra eskatzen du, erabatekoa,  
bestelakorik gabeko betetasunerantz amildua;  
ondasun materialen gabeziak sortutako zorabioagatik  
kostatako maldan behera,  
bere errai hutsala ezkututzen duten parapetorik gabea.

Gorantz jotzeko  
komeni da gero eta beherago joatea,  
induljentziaz blaitutako euriarekin kontaktu zuzenean;

komeni da ibiltzea pribilegioen zama arinik gabe  
bere harrokeriazko arma eta  
ateak blokeatzen dizkiguten segurtasunetik aske.

Aldapan gora beheratuz!,  
ur korronte freskoa,  
eutsi nahian ihes egiten diguna,  
erori behar duena,  
bere iturri isila  
berriro urratzeko itxaropenarekin,  
leunki leunki gainezka egin behar duena  
itsasoan desagertu arte.

(Toño Martínez)

## Gutuneko azken hitzak

Ezagutza eta jakituria ez dira inoiz nahastu behar. Lehenengoak bizimodua ateratzeko balio digu; jakituriak bizitzen laguntzen digu. (Sorcha Carey)

## 2020ko abenduako eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate abenduako erreferentzia guztiak:

1 Lk 10, 21-24	8 Lk 1, 26-38	15 Mt 21,28-32	22 Lk 1, 46-56	29 Lk 2, 22-35
2 Mt 15, 29-37	9 Mt 11, 28-30	16 Lk 7, 19-23	23 Lk 1, 57-66	30 Lk 2, 36-40
3 Mt 7, 21,24-27	10 Mt 11, 11-15	17 Mt 1, 1-17	24 Lk 1, 67-79	31 Jn 1,1-18
4 Mt 9, 27-31	11 Mt 11, 16-19	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-18	
5 Mt 9,35-10,1.5-8	12 Mt 17, 10-13	19 Lk 1, 5-25	26 Mt 10, 17-22	
6 Mk 1, 1-8	13 Jn 1,6-8.19-28	20 Lk 1, 26-38	27 Lk 2, 22-40	
7 Lk 5,17-26	14 Mt 21,23-27	21 Lk 1, 39-45	28 Mt 2,13-18	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Abenduako Otoitza  
hilaren 17an  
izango da.